

## UDAL-ERREGLAMENDU ORGANIKOAREN KONTSULTA PUBLIKOAREN IRAGARKIA UDALAREN WEB ATARIAN.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arauak egiteko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko asmoz, UDAL ERREGELAMENDU ORGANIKOA (ROM) proiektua egin aurretik, etorkizuneko arauaren eraginpean egon daitezkeen subjektuen eta erakunde adierazgarrienen iritzia eskatzen da:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onesteko premia eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egon daitezkeen erregulazio-irtenbide alternatiboak eta erregulaziokoak ez direnak.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek HAMABOST LANEGUNEKO epea dute, iragarki hau Udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, galdetegi honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia helarazteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako lekuetako edozeinetan aurkeztuta.


UDAL-ERREGLAMENDU ORGANIKOAREN INFORMAZIOA:	
<b>KONPONDU NAHI DIRAN ARAZOAK</b>	Udalak, toki araubideko araudiaren babesean erregelamenduak egiteko eta bere burua antolatzeko ahalmena erabili, erregelamendu honen bidez bere antolaketaren eta funtzionamendu araubidearen alderdi batzuk garatu edo zehaztu nahi ditu.
<b>EGOKITASUNA</b>	Antolakuntzako zenbait alderdi arautzeko komenigarritasuna, gobernua, administrazio-egitura eta eginkizunak betetzeko modua arautzeko.
<b>HELBURUA</b>	Udal-antolaketaren alderdiak zehaztea, araudi orokorra Bermeoko egoera berezietara egokitzeko.
<b>BESTE AUKERA ERREGULATZAILEAK</b>	Ez dira aurreikusten.

## Kontsulta publikoa

Araudiaren izena	Saila	Kontsultarako epea	Egoera	Informazioa	Tramitatu
Udal Erreglamendu Organikoa (ROM)	Idazkaritza	2025eko martxoaren 13tik apirilaren 2ra arte.			



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16. - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010 idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.	<b>Sinadurea eta data</b> CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 12/03/2025 12:16:03	EXPEDIENTE :: 2025IDA_ERA_0048
	Kodea: 07E900125DCA00G4Y9H1Y3Y6A1		Fecha: 12/03/2025 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

CSV: 07E900125DCA00G4Y9H1Y3Y6A1

